

<b>Izenburua</b>	<i>Bazara Batzordeak</i>
<b>Formatua/ Antolaketa</b>	Batzordeak
<b>Egilea/ Antolatzailea</b>	Arizmendi Ikastola
<b>Kontaktua</b>	arizmendi@arizmendi.eus / 943 77 20 25
<b>Nori zuzendua</b>	DBHko eta Batxilergoko ikasleei
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lider linguistikoak ahalduntzea (euskaltzaleak) eta horretarako topagunea eskaintzea.</li> <li>• Batzorde hauetako ikasleei berriazko prestakuntza eskaintzea hurrengo ideien inguruan: hezkuntza soziolinguistikoa, ekolinguistikoa eta autogestioa.</li> <li>• Batzordetan parte hartzen duten ikasleak beste ikasleentzako erreferente bihurtzea.</li> <li>• Herrietako euskalgintzako eragileekin zubilana egitea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• DBHko 1. mailan Batzordeak aurkeztu eta taldeko ordezkariak zein profil linguistiko behar duen finkatzen da.</li> <li>• Ordezkariak ikastolako Bazarako erreferenteekin elkartzen dira.</li> <li>• Batzorde bileretan aipatutako helburuei begirako proposamenak eta antolaketa egiten dira.</li> <li>• Ikastolak testuingurua eta dinamiken bitartez ezagutzak eskaintzen dizkie, eta ikastolan antolatzen diren ekimen bereziak aprobetxatuz, ikasleak antolatzen dira norbere mailan gainerako ikasleen kontzientzia pizteko</li> <li>• Ikasleak geroz eta helduago izan, orduan eta aukera gehiago ematen zaizkie autogestiorako.</li> </ul>
<b>Denboralizazioa</b>	Ikasturte osoan zehar egiten da lanketa, bilerak...
<b>Eranskinak</b>	<a href="https://www.ulibarri.euskadi.eus/eu/2012-jardunaldia">https://www.ulibarri.euskadi.eus/eu/2012-jardunaldia</a>

**Oharrak**

DBHn helburu nagusia oinarrizko ezagutza eta ahalduntzea bada, Batxilergoan garrantzia ematen zaio Batzordetako kide izateko hautua bereiek egin dezaten (euskaraz bizitzeko hautu kontzientea egiteko dinamikak antolatzen dira eta herriko euskaingintzako eragileekin harremana sustatzen da).